

EUSKAL IRRATIAK ANALISIA ETA KRITIKA

Sarrera

Duela urte bi eta erdi inguru, KARMEI aldizkari honetan (1986-3, 84-95), euskal irratiaren errealitate soziokulturalari buruzko kritika bat argitaratu nuen: artikulua izenburua zera zen: «Euskal irratiak (kritika)». Eta ondorioak zer?

Euskal irratiaren hobekuntzarako eta euskal independentzia eta askatasun soziokulturalari buruz gauza interesgarriak esan ohi diren arren, paradoxiko edo ironikoa gertatzen da askatasuna eta kritika aldarrikatzen duten irrati hauek zer bait esatean, hor nola agertzen diren ikustea.

Baina artikulua honetan, beste atal bat jorratu nahi dut: dirudienez, orokorki hitzegitea edo adibide bakan batzuk azaltzea ez da aski. Estadistika munduan sartu eta zenbakiak diotena aztertzea beharrezko arkitzen gara euskal irratiaren errealitate kulturalaz jabetzeko.

Aurreragoko artikuluan egin nuen bezala, Zornotzatik entzuten ditudan eta ohiartzun geografiko orokor bat duten euskal irratiak buruz arituko naiz:

Donostiko Euskadi Irratia (EI)
Loiolako Irratia (LI)

Arrate Irratia (AI)
Bilboko Herri Irratia-FM (HI)

Estadistika hau egiteko, irratsaio bakoitza egunean 16 orduz entzun, kontrolatu, apuntatu eta aztertu nuen, goizeko zazpietatik gaueko hamaikak arte, eta kontrol egunak hauek izan ziren: EI eta LI azaroaren 3an, osteguna, eta AI eta HI azaroaren 4an, ostirala.

Orain aditzen ematera noakizuen zifrek, irratietako zuzendari politiko-kultural askori zer pentsa emango dieté.

16 ordutako ekitaldi etengabeak egin ditudan arren, adibidez EI-ren programazioa 24 ordutakoa dela eta AI-rena goizeko 9 etan hasi eta gaueko 11etan inguruan bukatzen dela esan beharra dago.

I - Estadistika

Aurkeztzen dudana estadistika honek galdera hauei erantzuten die: euskal irratiek, gehienbat EI-k, nolako eragina dute hizkuntza eta euskal kuran? Zehin da gehien hedatzen den kultura? Zein da elkarriketa, musika eta propagandenganako errealitate kualitatibo eta kuantitatiboa? Irrati euskaldunek zein puntutara ino betetzen dute beren helburua?

a.Kantu-Musika

Irratien funtsezko oinarrietariko bat musikaren mundua da: EI-k 5 ordu eta 6 minutu eskeintzen dizkio, hau da, eguneko denboraren % 26,40; LI-k ordu 2 eta 2 minutu (% 13,75); AI-k 3 ordu eta 3 minutu (% 22,79) eta HI-k 6 ordu, 45 minutu eta 35 segundu (% 42,22).

Irratiaren munduan musikak (ia beti «moderno») nolako garrantzia kualitatiboa duen erakusten digute portzentaia hauek.

Baina kultura musikalaren jatorria aztertzen badugu, euskal irratien helburua ez dugu argi ikusten, zeren eta AI izan ezik, (honek musika ekitaldiaren % 70,18 euskal musikari eskeintzen

dionez gero) beste irratietan ingeles (EEBB) kantu da gaina hartzen duena, zalantza izpirik gabe. EI-k euskal kantuari 44 minutu eta 10 segundu eskeintzen dizkio (% 17,35) (gainera gehienetan estilo berekoa) eta musika-kantu ingelesari ordu 2 eta 24 minutu; LI-k euskaldunari 25 minutu (% 18,93) eta ingelesari ordu 1 eta 15 minutu (% 57,19); HI-k euskal musikari ordu 1 eta 48 minutu (% 26,68) eta ingelesari 3 ordu eta 49 minutu (% 56,37) eskeintzen dizkio. AI-k kontrako bidea darama: euskal kantuari ordu 2 eta 15 minutu (% 70,18) eta ingelesari 6 minutu eta 30 segundu (% 3,28) eskeintzen dizkio.

Hizkuntzak		Kantu kop.	Minutuak	%
EUSK.	EI	19	44' 10"	17,35
	LI	9	25'	18,93
	AI	56	134' 40"	70,18
	HI	45	108' 15"	26,68
GAZTEL.	EI	8	21'	8,28
	LI	10	25' 20"	19,02
	AI	10	36' 35"	18,98
	HI	24	68' 30"	16,84
INGEL.	EI	52	143' 45"	56,59
	LI	41	75' 05"	57,19
	AI	5	6' 30"	3,28
	HI	82	228' 50"	56,37
Beste HIZ.	EI	11	45'	17,75
	LI	2	6' 30"	4,77
	AI	5	14' 50"	7,33
	HI			

Interesgarria da kantuen kultura musikala eta euskal musika gehien bultzatzen dituen irratia AI dela esatea, beste irratien gan badirudi ezaugarri honek ez duela hain garrantzia handirik... Adibidez, EI eta HI-k musika-kantu ingelese darabilte gehien, eta euskalduna ez dela hain ugaria esanez (eta partez egia da) jus-

tifikatzen da musika haren erabilera. Baina adibide bat emateko, EI-k euskal musikaren estilo bat erabiltzen du bakarrik (rock eta antzerakoak), guztiz unilaterala da; AI-k musika saioaren % 70,18 euskalduna erabiltzen duen artean, EI-k ez du euskal musika mota hau erabiltzen. Eta hain zuzen ere EI-k izan behar luke musikari dagokionez euskal kulturaren eragile nagusia, euskal irratia nazionala den aldetik.

b. Euskeraren erabilera hitzegina

Irakurketa, monologo, elkarrizketa, eta abarretan erabiliriko hizkuntzari zuzentzen gaitzaizkio atal honetan. Euskera gehien erabiltzen duten irratia EI (590 minutu; % 61,45) eta AI (523 minutu; % 62,27) dira; LI eta HI-k bi aldiz gutxiago dabilte euskera. LI-an meza eta errosaioa kenduta, euskeraren erabilera ez da % 25era heltzen. Portzentaia honetaz gainera, gehien kalitatea aztertzen badugu LI-n euskera nahiko baztertua dagoela esan beharra dugu.

Euskera hitzeginaren erabilera:

	Minutuak	%
EI	c. 590'	61,45
LI	c. 133'	32,65
AI	c. 523'	62,27
HI	c. 303' 35"	31,59

c. Propaganda eta musika

EI eta AI-k propagandak euskaraz egiten dituzte; LI-k gaztelera gehiago egiten du euskaraz baino, eta HI-k propaganda guztiak egiten ditu erdaraz.

Ondoko taula honetan propaganda kopurua eta gutxi gora beherako denbora azaltzen dut. Propaganda bakoitza egunecan bizpau aldiz errepikatzen dela esan beharra dago.

		Prop. kop.	Minutuak
EUSK.	EI	35	13'
	LI	36	13'
	AI	68	30' 50''
	HI	2	35''
GAST.	LI	97	34'
	HI	28	12' 55''

Eta musika instrumentala eta sinfonikoari dagokionez, hau da, testu linguistikorik gabe, irratitik transmititzen den euskal musika oso gutxi da.

		Musika euskalduna	Ez-euskalduna
EI		6' 45''	90' 50''
LI		7'	12' 15''
AI		4' 50''	87' 05''
HI		5' 10''	5'

d. Euskeraren erabilera orokorra

Oso arraroa da euskara monolinguea erabiltzen duen EI batek (euskal irratia nazionala) euskara % 67,50 baino gehiago erabiltzera ez heltzea elkarrizketetan, propagandetan, abestietan etab. AI da euskara gehien erabiltzen duena, hau da, % 82-tik gora.

LI eta HI-k % 36,66 eta % 43 darabilte. Esan beharrekoa da, gai garrantzitsuak, albisteak, etab. erabiltzeko gaztearekin konparatuz kondizio txarretan aurkitzen direla. Hau gehienbat LI-n ikusten da.

		Minutuak	%
EI		648'	67,50
LI		352'	36,66
AI		689'	82,02
HI		413'	43,02

II. Komentarioak irratik bakoitzari

Arazo honetan idatzi nuenetik, 1986 an (Karmel 1986-3, 84-95) irratien egoera ez da aldatu; estiloa, ideia eta aurreritzi berberekin jarraitzen dute. Arrazoi hau dela eta, ez naiz gehiegi luzatuko, baina orain artean esanikoa manteotzen jarraitzen dut.

Hasteko, 1985 eta 1987 urteetan Espainiako irratiek izan duten entzulegoari buruzko estadistika interesgarri bat eta Euskadi-Irratiari dagokion portzentaia azalduko dut (Euskadi Irratiari dagokion 1987ko datuetan «Radio-Euskadi»-Bilbo-ren eragina somatzen dela uste dut). Agertzen ditudan datuok entzulegorik handieneko eta murrizteneko orduak zeintzuk diren jakiteko balioko digute.

1985 eta 1987-ko Irrati entzulegoa. Espainian eta Euskadi Irratian:

	1985 Espainian	EI (%)	1987 Espainian	EI (%)
7-8	1.901.000	0,4	1.691.000	1,0
8-9	3.753.000	0,7	2.809.000	1,0
9-10	4.794.000	0,6	3.753.000	1,0
10-11	5.635.000	0,6	4.860.000	0,9
11-12	5.741.000	0,5	5.210.000	1,0
12-13	5.397.000	0,5	4.780.000	1,1
13-14	4.798.000	0,6	4.114.000	1,0
14-15	3.641.000	0,7	2.878.000	1,2
15-16	1.946.000	0,6	1.594.000	1,7
16-17	2.521.000	0,5	2.301.000	0,7
17-18	3.110.000	0,2	2.920.000	0,7
18-19	3.108.000	0,2	3.022.000	0,5
19-20	2.898.000	0,3	2.572.000	0,6
20-21	2.062.000	0,7	1.843.000	0,7
21-22	1.255.000	0,1	1.471.000	0,4
22-23	1.092.000	0,3	1.229.000	0,6
23-24	1.724.000	0,2	1.810.000	0,9
24-1	1.966.000	0,3	2.041.000	0,5

«El País. Anuario 1986» eta «El País. Anuario 1988»-tik hartutako datuak.

a) Euskadi Irratia (EI) (Donosti)

Normalizazioa osoan sartu den euskal-irradi bakarria EI dela esan genezake: gai guztiak darabilzki euskaraz. Luzez mintzatuko nintzateke irradi honen gauza on eta positiboetaz; baina artikulu honen helburua irratiaaren analisia egin eta bere hobekuntzara bideratuko dituen akatsak azaltzea da soilik.

EI osoki normalizatua dago, irradi publikoa da eta beste hiru irratiekin konparatuz (LI, AI, HI), diru eta pertsonal ugariagoa duen aldetik, gehiago eskatzen zaio; horregaitik aztertzen eta kritikatzten dut preseski ardura handiagoz ere.

	Abestiak			Hizketan		Propaganda		Eusk. osoan		Eusk.	Ez Eusk.
	Kop.	Minu.	%	Minu.	%	Kop.	Minu.	Minu.	%		
Eusk.	19	44' 10"	17,35	c. 590'	61,45	35	13'	c. 648'	67,50		
Gast.	8	21'	8,28								
Ingel.	52	143' 45"	56,59								
Be. Hi.	11	45'	17,50								
Musik.										6' 45"	90' 50"
Osoan	90	253' 45"	26,40								

- Irratsaioen ordutegiari dagokionez

Arestian euskal eta ingeles musikaren arteko desproporzioaz aritu baldin bagara ere, entzulego nagusiaren orduetan (zortziretatik hamaiketara eta ordu batetatik hiruretara) ezberdintasun hau ez dela hain handia esan beharra dago. Honekin zera ematen da aditzera: euskal kantuari zer edozelako garrantzia ematen zaiola. Kantu ingelesaren aldeko desproporzio honen entzulego murriztagoko orduetan du leku (bostetatik zortziretara). Interesgarri deritzat musika klasikoaren orduan (hiruretatik lauretara) EI-ak duen entzulegoa nolako handia den ikustea (hala eta guztiz ere esan behar dut EI-ko arduradunek izango duten datu zehatzik ez dudala). Txit interesgarritzat jotzen dut honako beste puntu hau ere: entzulego handienaren orduetan entzuten dela euskera gehien.

- Eritziz-eritzi:

• Albistegintza

1986ko artikuluan albisteen edukina nahiz forma gogorki kritikatu nituen eta hitz hauekin bukatzen nuen nere idazkina: «Hain zaila ote da Euskadiri eta euskarari gehiago begiratzuz albistegintzan abiada berri eta jator bat hartzea? Profesionalagoa, egiazaleagoa, euskarazaleagoa, Euskadizaleagoa?» (95. orr.).

Egia esateko, EI-ko albisteak lehen baino gutxiago entzuten ditut. Horrela bada, arazo honi ez diot luzapenik emango, gai honi buruz idatzi nuen azken alditik ez bait dut uste hobe-kuntza handirik egon denik.

EFE agentziak indar garrantzitsua duela uste dut... Nik albistegi profesionalago bat, «euskal-nazionala»-goa nahi nuke. Al-diz batzuetan, albisteak agertzeko ordena garrantzia SER-ekoarenaren antzekoa da. Normalki Felipe Gonzalez-ek egiten eta esaten dituen gauza guztiek proiektio guztiz handia dute, bere partiduari dagozkion gauzak ukitzen baditu ere: Felipek mugimendurik txikiena egiten duenerako, irratiek kanpai hotsa-ri isildu gabe ekiten diote... (EI barne).

Adibide gisa, 1988ko Martxoaren 14an Ardantza lehenda-karia Ameriketaruntz irten zenean, EI-ko zortziterako albisteetan era guztietako eta partidu bat nahiz besteko albisteak eman eta komentatu ziren, egunerokoak, erdipropagandistikoak, etab. eta guzti honen atzetik, guztiz arrunta zaigun edozein beste albiste izango balitz bezala aipatu zen lehendakariena eta denbora gutxiago erabiliz. Are gehiago, bidai honen ondoren, lehenda-karia atzerriratu zen beste kasu batetan, albistegiko jokabide profesionala askotzaz txarragoa izan zen...

Irrati hau hamasei orduz aztertu nuen Azaroak 3-an bildu-tako beste adibide interesgarri bat azalduko dut orain: EI-k sei-retako albistegian ETA-ko batzuek «Herrera de la Mancha» pre-sondegiko modulo bat erre zutela zioen artean, ordu berean, COPE-k albiste hau gezurra zela esaten zuen; zazpiretan EI-k al-

biste bera errepikatzen zuen eta zortziretan ez zuen suari buruz ezer gehiago esaten...

Ez dut kasuiztikaz hitzegiten jarraitu nahi... Zera da nik esan nahi dudana: EI-ren albistegintza hobetu daitekeela: askcagoa, euskal-nazionalagoa, irekiagoa eta profesionalagoa eginez.

•Kulturgintza:

Gai honetan irratiek sekulako garrantzia dute. Irratiaren funtzioak asko dira: ahantz araztea, gustoak eta eritziak mantentzea, eragitea, sineskera eta ideologiak sortzea... Baina orain musika ingelesaren erabilkuntzaz ari naiz, kontu hau dela eta irratiek dituzten barne arazoak ezagutzen ditudan arren. Dena den, arazo hauek izanda ere gehiegizkoa iruditzen zait kantu ingelesaren erabilera.

Arestian ere komentatu dut arazo bera. Bitxia da honako hau ikustea: Espainiako beste irratietan bezalatsu, EI-n ere politika antiamerikanista, hirugarren mundukoa, partidista eta manipulatzailea darabilela, baina kultura eta musikari dagokionean, proamerikanismo inozo, gehiegizko eta menperatzaile bat eskeintzen digula... EI-k kultura amerikarraren alde apostu egin balu bezala.

Ez dugu musika ingeles honen aurka egon behar, modakoa izateaz gain merkatuan gehien saltzen dena eta gure denbora libreak atseginez laguntzen bait digu... Baina beste gauza bat gehiegikeria da: kantua ingelesari 143'45" dedikatzen zaizkio; 12'15" bostetatik seiretara, 22'15" seiretatik zazpiretara, 25'10" zazpiretatik zortziretara eta 50'45" hamarretatik hamaiketara. Ordu hauek musika ingelesari bereziki eskeiniak daudela dirudi.

Musika bera entzunaren entzunez, azkenean laket dugu eta badirudi, hau dela hain zuzen, beren helburua. Hau da gustoak eragiteko eta eritziak eratzeko bidea? Ez al litzateke gauza bera egin behar euskal musikarekin? Eta are gehiago EI bezelako euskal irradi nazional batek, helburu gisa euskal kulturaren eragina izanik.

•Probintzikeria?

Ei Eusko-komunitate Autonomorako eginikako irratia dugu; halere, Euskal Herri osoa hartzen du kontutan. Puntu hau arautzat hartu ezkerro erdikokeria eta probintzikeria franko nabaritzen dela uste dut... Ulergarria deritzat, baina ez dut uste ontzat ematekoa denik.

•Erlijioa edo eta kristaitasunaren aurkako joera

Argi dakusagun beste puntuetariko bat dugu honako hau. Gutxien ustean, erlijioa mespretxatzen da edo bestela ez da aipatu ere egiten. Benetako profesional batek ez du horrelakorik egundo egiten. Baina dirudienez, Ei-n erlijioaren kontrako jende dextente dago eta inongo gorritzerik jasan gabe adierazten dute gainera... Hain da ugaria, ezen adibideak jartzea ere ez bait du merezi... Azaroak 3an, irratia aztertzen egon nintzen egun hartako kasu bat azalduko dut bakarrik:

Goizeko bederatziak eta laurdenetan, heziketa arauetara buruz hitzegiten duen andere batek, fededun izan edo ez, elizari buruz eduki behar den heziketa eta errespetuaz hitz egin zuen. Tamalgarria da, zenbait kazetarik arau hauek ez dituztela zaintzen ikustea. Egun guztian, ez zen erlijioari buruz txintik esan; baina hamarrak eta hamarreen, kazetari batek Domu Santuko jai egunari buruzko artikulua bat idatzi edo irakurri zuen: lotsagarria izan zen burlagarri jarri zuen aldetik; alde txarrak edo negatiboak azaldu zituen bakarrik eta gauza guztiz mespreziakor, barregarri eta umilgarriak esan zituen ez ditut hemen aipatu ere egin nahi; eta irrijolas gehiagorako, errespetuz esaten zuela zioen... Denek ordaintzen duten irrati batetan...! Arazoa ez zen hor bukatu. Urriaren 5ean, larunbatean, hamaikak eta hogeitabostean hizketaldi bera errepikatu zen eta honekin batera baita mespretxuak ere... Ez dut bere izena salatzerik nahi. Ondorio gisa ateratzen dena zera litzateke beraz: jai erlijioso bati buruz egiten den komentarioa barregarri egiteko eta mespretxurako besterik ez dela... Eta ustekabe hau, entzulego gehiengoaren orduan eman zen hain zuzen ere. Urriak 3-ko egun hortan, erlijioari buruzko

beste mespretxu bi gehiago kontatu nituen... [Hau gero ta naba-riago agertzen da, gaur arte, 1989-II-21. Batzuetan EI ideologiz-ko diktadura zapaltzaile lez agertzen da].

Nire ustez EI irekiagoa izan behar litzateke eta ez hain hertsia!

•Ideologiak:

Kapitulu hau guztiz eztabaidakorra da. Ideologia soziokul-turalez ari naiz eta ez kazetariak batzutan hain argi agertarazten duten beren ideologiaz bakarrik... Gai honi buruz egiten diren lanak aztertzea ez litzateke bat ere gaizki egongo. Baina ez dut gai hau komentatzerik nahi...

Azkenean guzti hau EI-ren onuragarri edo kaltegarri izan-go ote den galdetzen diot nere buruari. Badago, hutsegite hauek direla eta EI pizten ez duenik ere. Entzulegoa irabazteko EI ire-kiagoa izan beharko litzateke, profesionalagoa eta errespetu ge-hiagoz jokatu beharko luke...

Ez dut EI-ko zuzendariaren ahalmena eta aurrera egiteko kemena zalantzan jartzen. Baina dakusadanez, eguneroko irratia ez dute zuzendariak egiten, mikrofonoa hartzen dutenak baimo. Arrazoi hau dela eta, pesimismoak gainditzen nau; ez bait dut uste arduradun nagusiek nahi izango duten arren hobetuko de-nik. Gaur egun, eguneroko irratia egiten dutenak, barnean dara-matena azaltzen dute eta azaltzen dutenari buruz zerbait esan dudala uste dut bederen.

b) Loiola Irratia:

Hasteko, irrati honi dagokizkion datu estadistikoak ematea beharrezkoa dela uste dut:

	Abestiak			Hizketan		Propaganda		Eusk. osoan		Eusk.	Ez Eusk.
	Kop.	Minu.	%	Minu.	%	Kop.	Minu.	Minu.	%		
Eusk.	9	25'	18.93	313'50	32.65	36	13'	352'	36.66		
Gast.	10	25' 20"	19.02			97	34' 35"				
Ingl.	41	75' 05"	57.19								
Be. Hl.	2	6' 30"	4.77								
Musik.										7'	1215
Osoan	62	132'	13.75								

LI-ren egoera nahiko ezberdina da EI-rekin konparatu ezkeror: Lehenengo eta behin, LI irrati pribatua da eta teorikoki behintzat Jesuiten eskuetan dago; «teorikoki» esan dut, zeren eta transmititzen den edukina ikusiz, zaila egiten bait zaigu hau sinestea...

1986an artikulua idatzi nuenetik egoera ez da asko aldatu... nere kritziak ere berdintsu jarraitzen du. EI-rekin egiten dudana antzera, kasu berri honetan ere pentsa araziko diguten hainbat datu negatibo emango ditut. Hala eta guztiz ere, LI-k beste hainbat aspektu positibo dituela esatea ez dut gehiegitzat jotzen errepikatzen baldin banabil ere.

- Irratsaioen ordutegiari buruz

Ikusi dugunez, euskararen erabilera (elkarrizketa, kantu propaganda) ez da % 37-ra heltzen; honez gain, meza eta errosarioa kendu ezkeror, ez litzateke % 25-koa ere. Eta hor ez da arazoa amaitzen: euskara entzulego gutxiengoko orduetan erabiltzen da (arratsaldeko hiruretatik hamarretara bitartean).

Euskal abestiei dagokionez zera ikusten da: gutxi izateaz gain, entzulego gutxiko orduetan ematen dela.

- Eritziz-eritziz:

• Albistegintza

Gehienbat erdararen nagusitasuna nabaritzen dugu; batzuetan Madriletik dela (COPE) eta bestetik, erdaraz emititzen diren euskal irrati herrikoiak direla eta (Euskadin gaur); lauretatik bederatzietara bitartean, albisteak lauretan irakurtzen dira bakarrik euskaraz eta hauek 4 edo 5 minutu irauten dute.

Albisteak emateko erari dagokionez, EI-ri buruz esan dudana errepikatuko nuke. Profesionaltasun ezari dagokionez ere EI-taz esana bera azalduko nuke baina puntutxo bat azpimarratuz, Urriak 3an EI-k arratsaldeko seiretan Herrera de la Mancha-ko modulo baten erretzeaz hitz egiten duenean, ordu berrean LI (COPE-Madrid)-k albiste hura ez zela egiazkoa ziurtatuko zuen eta arrazoiz; baina gertatzen den bitxikeria zera da:

zortziretan, EI-k albistea emateari utzi zioenean, «Euskadin gaur» (LI) erretze horren albistea ematen ari zela...

•Kulturgintza:

EI-ri esandakoa errepikatu ahal zaio. Horrela izanik, aldibide bat jartzeko zera esan genezake: musikari (abestiak) dagokionez, ingelesa 75' eta euskalduna 25'-takoa dela. Abesti musika espainolari euskaldunari baino hiruzpalau segundu gutxiago eskeintzen zaizkio.

Euskal kulturaren ardatz dugun euskararen arloari dagokionez, gogoeta hauek datorzkit burura: hasteko, esan beharra dut, bai kalitate eta bai kantitate mailan erdarak bere nagusitasuna gordetzen duela LI-n. Nere galdera hau da: kulturalki begiratu euskalduna eralduntzen ari gara? Nik baietz esango nuke: LI-ren datuak darabilzkit: dirudienez, entzulegoaren % 85,15-ak euskara daki (mintzatzen, irakurtzen, idazten edo ulertzen dute). Orduan nola liteke euskeraren erabilera kuantitaboa (elkarriketia, musika, propaganda) % 37-ra ez heltzea? Kalitateari begiratu ezker (gaia eta interesgarritasuna) ez dut uste % 15-era helduko litzatekeenik. Nolako ederra izango litzatekeen kasua beste erara emango balitz, euskara entzulego gehiengo horiek menperatuko balu, eta euskara ez dakien % 15 horri euskalduntzen lagundul!

Alde batetik, oso ongi ulertzen dut LI-ren egoera, eskadia ekonomikoa dela medio, eta esan beharrekoa da, EI-k ez duela zailtasun hau. Esperientziaz ikusi dugunez, ekonomia agintzen ez dagoen lekuan, euskara galtzen doa... Egiazko arazoak dira...

Amaitzeko, gaur Urtarrilak 5, eguerdiko ordu bat eta erdietan LI esaten ari dena komentatuko dut: «Kale-kantoiak» emisioan jendeak telefonoz bere nahiak agertzen dizkie erregeei: interesgarria da jendeak herrian eta irratian bertan ere (LI) euskaraz gehiago hitz egiteko eskatzen duela ikustea.

•Ideologiak, mentalitateak...

Irrati pribatua den aldetik, nahi duten zuzendaritza izateko eskubide osoa dute. Hain zuzen ere, jesuiten eskuetan dagoen

irradi bat dela jakinik, askotan hartu izan den jarrera politiko eta mentalitate partidista eta batzuentzat anti-erlijiosoak guztiz harritzen nau. Irratia enplegatuek osatzen dute eta enplegatu horietariko batzuek LI-n badaude... hau da, egon behar ez luketen lekuan..., gai honekiko arazoez ez dute sekula amaierarik. Tamalgarria benetan. Zeren eta nere ustetan, LI EI-ren alternatiba izatera helduko litzateke, hain zuzen ere EI baino irekiagoa eta gizakorragoa, baina...

c. Bilboko Herri Irratia-FM (HI)

Hona hemen HI-ri buruzko datuak:

	Abestiak			Hizketan		Propaganda		Eusk. osoan		Eusk.	Ez Eusk.
	Kop.	Minu.	%	Minu.	%	Kop.	Minu.	Minu.	%		
Eusk.	45	108' 15"	26,22	303' 35"	31,59	2	35"	c. 413'	43		
Gast.	24	68' 30"	16,56			28	12' 25"				
Ingl.	82	228' 50"	55,41								
Be. Hi.											
Musik.										5'10	5'
Osoan	151	398' 35"	41,48								

HI-ren egoera berezia da, baina alde batetik LI-ren antzekoa. Irrati honi buruzko komentarioan ez naiz luzatuko.

Euskararen egoerari HI-k euskara gehiago darabil; elkarriketetan irrati biek euskara erdi berdintsuki darabilten arren (LI-k apur bat gehiago), euskal-kantu dagokionez, HI positiboagoa da; honetaz gainera, euskal kantu hauek entzulego nagusiaren orduetan jartzen dira goiz guztian zehar.

-Eritziz-eritzi:

•Albistegintza

Egoera LI-renaren antzekoa da: erdara nagusitzen da (aldiz Madrileko COPE, aldiz Euskal Herriko irrati herrikoiak direla eta, hala nola, «Euskadin gaur»).

•Kulturgintza:

Euskal kanturi denbora gehiago eskeintzen dio (108') EI-k (44') eta LI-k (25') baino; kantu ingelesari dagokionez ordea, HI da gehien darabilena, hau da, % 55 baino gehiago (ia-ia 229').

Badirudi kantu ingelesa plazaratu nahi dela... Ez zait iruditzen euskal kultura eragiteko hildo zuzena denik. Eta darabilten estiloa ikusirik are gutxiago. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, euskal kantua entzulego nagusiaren orduetan jartzen dela; ingelesa arratsaldetan ematen da gehienbat (ordu bietatik hamarretara).

LI-n bezalatsu, gaztelania da propaganda, kirol, albistegi, etab. rretan nagusi nabaritzen dena.

d) Arrate irratia (AI)

AI irratia ren euskara hutseko erabilearen datu hauek guztiz positiboak ditugu:

	Abestiak			Hizketan		Propaganda		Eusk. osoan		Eusk.	Ez Eusk.
	Kop.	Minu.	%	Minu.	%	Kop.	Minu.	Minu.	%		
Eusk.	56	134' 40"	70,18	523' 10"	62,27	68	30' 50"	689'	82		
Gast.	10	36' 35"	18,98								
Ingel.	5	6' 30"	3,28								
Be. Hi.	5	14' 05"	7,33								
Musik.										4' 50"	87' 50"
Osoan	76	191' 50"	22,79								

AI da euskarari denbora gehien eskeitzen dion irratia (% 82). Egia esateko, gaien kalitateaz da EI-batek darabilzkienekin konparatzekoa, baina argi uztekoa da eta esan behar da, AI-k EI-ren albisteak erabiltzen dituela.

Ez noa AI kritikatzera, zeren eta dituen baliabide gutxiekin kaleratzen duena, nola lortua den ikustea ere estimagarria bait da.

Julen Urkiza - Ana Urkiza